Aurizko Udaletxean, 2023ko apirilaren 25ean, 17:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran eta Ana Azanza Burusco, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Mikel Gaztelu Alonso zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

**1.- 2022ko ABENDUAREN 19ko eta 2023ko URTARRILAREN 14ko, OTSAILAREN 16ko ETA APIRILAREN 11ko BILKUREN AKTEN ONESPENA**  
Udalbatzak erabaki du aho batez 2022ko abenduaren 19ko eta 2023ko urtarrilaren 14ko, otsailaren 16ko eta apirilaren 11ko bilkuretako aktak onartzea.

### **2.- 2022ko ABENDUAREN 16tik 2023ko APIRILAREN 20a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Irigaray alkateak 2022ko abenduaren 16tik 2023ko apirilaren 20ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

### **3.- DESPOPULAZIOAREN AURKAKO ESTRATEGIARI BURUZKO EBAZPENA BERRESTEA**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko otsailaren 17ko 42/2023 ebazpena berrestea. Hona hemen:

*Aurizko Udalak, Pirinioetako eremuan kokatutako tokiko erakundeak, jakinik gauzatzen ari den Nafarroako Lurralde Estrategiaren berrikuspena oso garrantzitsua dela despopulazioari eta erronka demografikoari aurre egiteko estrategia garatzeko, izan ere, tresna horren mende dago, hein handi batean, Despopulazioaren aurkako Estrategiak berak ezar dezakeena, denboran eta forman, iradokizun bat aurkeztu zuen hura berrikusteko. Bertan, despopulazioa aintzat hartu eta kontuan hartuko duen esparru-lege bat eskatzen da, Nafarroako hainbat landa-eremutako errealitate horiek iraultzeko politika publiko egokien diseinuari ekarpena egiteko gai izango dena.*

*Pirinioetan despopulazioari aurre egiteko neurriak eta ekimenak hartu badira ere, frogatuta dago ez direla nahikoak, populazioak behera egiten jarraitzen duelako, eta,*

*beraz, arazo hori askoz sakonago konpondu behar da, bai maila sozialean zein ekonomikoan.*

*Despopulazioaren aurkako Estrategia egiteko prozesuan planteatutako sei eremuak oinarri hartuta, Pirinioak despopulazioarekiko eremu kalteberena dela jakitun izanik, eta fenomenoak lurraldean duen larritasuna kontuan hartuta.*

**ESKATZEN DUGU:**

*Atzerapenik gabe, eta erlojuaren kontrako borroka horretan ahalik eta arintasun handienarekin, Despopulazioari Aurre Egiteko Legea, arazo horrekin identifikatutako landa-eremuekin kontrastatua eta landua.*

*Lege hori garatzeko aurrekontu-partida gaitzea.*

#### **4.- 2023KO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta 2023ko ekitaldirako prestatutako aurrekontua aurkeztu du: 885.243,64 €. Gaineratu du aurrekontua oso handia dela erakunde horrek erabili ohi dituen balantzeetarako, baina salbuespen bat dela; izan ere, Covid 19aren ondorioz, Next Generation funtsak sortu dira, eta horri gehitu behar zaizkio Tokiko Azpiegituren Planeko obrak, eta, pandemiaren ondoriozko geldialdia dela eta, inbertsio guztiak bat datoz 2023ko eta 2024ko ekitaldietan. Taulan azaldutako inbertsioak direla, eta, alde batetik, udalerrarentzat beharrezkoak direla, eta, bestetik, hain baldintza ekonomiko onetan jasotzen direla, ezen Korporazioaren aldetik hori gauzatzeko ahalegina eta apustua eskatzen baitu. Adibide gisa, argiteria publikoarena % 100eko dirulaguntza dago, eta, horregatik, Udalak, obra egin ondoren, azken fase horretan aurreikusitako inbertsioa gehi aurreko faseetan funts propioekin inbertitutako 18.394,07 € jasoko ditu; edo Girizuko iturburutik ur-hargunea hobetzeko inbertsioa ur-biltegiraino, klima-aldaketaren ondorioz jasaten ari den lehortea dela eta ezinbestekoa baita, eta horrek dakarren galeren murrizketarekin batera, egungo kanalizazioaren egoera oso eskasa denez, kalitatezko uraren hornidura bermatuko du. Hortaz gain, TAPeko inbertsioak daude, eta horietan Kanaleburuako zolaketa, udaletxeko bilkura aretoaren zola hobetzea eta idazkariaren pisuko zati bat bulegoetarako egokitzea sartu dira. Gaineratu du Udalak ez duela likidezia ekonomikorik, eta, hura finantzatzeko, aldez aurretik behar dela; beraz, epe luzerako mailegu edo kreditu bat eskatu behar dela uste du, eta Toki Administrazioiko Departamentuan egin beharreko kudeaketak egin behar direla dagokion baimena lortzeko.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko aurrekontua hasiera batean onartzea eta txostena Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Nagusira igortzea.

#### **5.- PLANTILLA ORGANIKOA. HASIERAKO ONESPENA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du iaz, epez kanpo, Aurizko plantilla organikoari buruzko idazki bat aurkeztu zuela Joseba Otano Villanuevak, Administrazioan Euskaraz Taldearen izenean. Idazki horretan hizkuntza-eskakizunak eskatzen ziren, indarrean dagoen legediaren arabera. Ez zitzaion erantzun, eta babesa eskatu zion Arartekoari, eta Alkatetzak konpromisoa hartu zuen aztertuko zuela eta

zuzenduko zela. Horiek horrela, aurreko urteetako plantilla organikoa onartzea proposatu du, baina administrari laguntzaileen lanpostuei hizkuntza eskakizuna jarrita.

Kontuan hartuta balorazioa tituluen bidez edo beste era batera frogatu ahal dela, bi lanpostu horien kasuan honakoa gehitzea proposatu du: *Euskara hizkuntza eskakizuna. Meritua %10*

Zerbitzu anitzetako langileen lanpostuei dagokienez, kontuan hartuta udalerrriak duen egoera demografiko larria (242 biztanle), tokiko maparen ziurgabetasuna, lanpostuak betetzen dituzten pertsonen adina eta tokiko erakundearen egoera ekonomiko zaila, uste du egoera jasanezina dela eta ez aldatzea proposatzen du, hutsik geratzen diren heinean amortizatuko baitira. Bere garaian zerbitzuak bermatzeko bestelako erak aztertu beharko dira.

Idazkaritzako lanpostuari dagokionez, Toki Administrazioari eta Despopulazioko Departamentuak Nafarroako toki entitateetako idazkaritzako lanpostu hutsen egonkortze irekiaren prozesuan sendotuko duen plazetako bat da, maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitatean gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoan, jasotako aurreikuspenen arabera. Idazkaritzako plazen zerrenda horretan ez da nahitaezkoa, baina bai puntuagarria, euskara jakitea Erroibar, Auritz eta Orreagako udalen batasuneko idazkari lanpostuarentzat. Gaur egun, idazkari lanpostuen eskumenak Departamentu horrenak dira, ez toki-erakundeak, baina proposatu du idazkaritzaren mendeko batasunari igortzea, haren eskumena baita hizkuntza-eskakizuna ezartzea.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 3.) 2023ko Plantilla organikoa onartzea eta administrari laguntzaileen lanpostuetan *Euskara Hizkuntza Eskakizuna* gehitzea. *Meritua %10*
- 4.) Erroibar, Auritz eta Orreagako Udaletako Batasunari idazkari lanpostuari hizkuntza eskakizuna ezartzeko aukera jakinaraztea.

## **6.- AURREKONTUEN ETA KONTUEN BATZARRA EGITEKO DATA ONARTZEA**

Udalbatzak aho batez erabaki du, udal hauteskundeak hurbil daudenez eta 2022ko ekitaldiko kontuak eginak ez daudenez, kontuen eta aurrekontuen batzarraren data kontuak izan arte eta hauteskundeak igaro arte ez zehaztea.

## **7.- TOKIKO BESTEN EGUTEGI PROPOSAMENA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza. Egutegiari dagokionez eta, zehazki, iraileko azokari dagokionez, herria eszenatoki edo protagonista izan den zinema-grabazioen aukeraketa bat jasotzen duen katalogo bat aurkeztea proposatu du ekitaldi nagusi gisa. Adibidez, 1950ean Josta-Leku frontoiaren inaugurazioaren grabazioa, 1956an filmatutako “Embajadores en el Infierno” pelikularena edo hirurogeiko hamarkadaren amaieran RTVEk grabatutako erreportajea, Teleclub programan eman zena, Alfredo Amestoy aurkezlea zuena.

Udalbatzak erabaki du aho batez alkateak Iraileko Feriaren ekitaldi nagusirako egin duen proposamena zein tokiko festen egutegia onartzea. Hona hemen:

-Igautreak (ospatuak)

otsailaren 11

-Udaberriko edo Gurutze Santuko Feria	maiatzaren 7a
-San Juan festak	ekainaren 22a, 23a, 24a, 25a eta 26a
-Artisautza Feria	abuztuaren 15a
-Iraileko Feria	irailaren 24a
-San Nikolas	abenduaren 6a

## **8.- URA HARTZEKO LANEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA**

Alkateak, Irigaray jaunak jakinarazi du herriak ura hartzeko dituen arazoak aztertuta, Infante ingeniariak Girizuko iturritik ur-biltegiraino doan hornidura hobetzeko memoria baloratua prestatu zuela Next Generation Funtzen deialdira aurkezteko. Bere ustez obra hori ezinbestean egin behar da, klima aldaketaren eraginez bizi dugun lehortea eta egungo kanalizazioaren egoera dela eta gertatzen diren galerak saihestu nahi badira, hortaz, lan egin behar da kalitatezko ur-hornidura bermatzeko. Inbertsioa 91.080 eurokoa da eta dirulaguntza 60.218 eurokoa. Ingeniaria proiektua lantzen ari da eta baldintza plegua onartu behar da lehen baino lehen lizitatzeko.

Azanza zinegotziak hitza hartu du eta gaineratu du obra horren bidez amiantoko tutueriak kenduko direla eta horrek osasunarentzako arriskua desagerraraziko duela.

Udalbatzak erabaki du aho batez ura hartzeko lanen baldintza plegua onartzea eta Nafarroako Kontratazio Atarian eta Plena Plataforman argitaratzea.

## **9.- ESPAINIAKO GOBERNUKO INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOAREN TURISMO-ERABILERA KO ONDARE HISTORIKOA DINAMIZATZEKO ETA LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO LAGUNTZEKIKO KONPROMISOEI BURUZKO ERABAKIA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du, deialdiko inprimakiak apirilaren 12ko EAOn argitaratu ondoren, bilerak egin dituela Fernando Martinez arkitektoarekin eta Kaizeneko Iñaki Cortesekin proiektua aurkezteko. Proiektua maiatzaren 12a baino lehen aurkeztu behar da, eta obrak, laguntza jasoz gero, 2024 eta 2025erako aurreikusitako egin dira. Bete beharreko galdetegietako baten kasuan, Udalak proiektua bermatuko duten hainbat konpromiso hartu behar ditu aldez aurretik. Hortaz, Udalbatzak honako erabaki du:

Aurizko “Harresi-esparruaren ondare historikoa berreskuratzeko” proiektuari dagokionez, haren perimetroaren zati bat sendotuz, lehiakortasuna hobetzeko eta turismo-erabilera duen ondare historikoa dinamizatzeko programara aurkeztuko da, eta 2022ko ekitaldirako deialdia egingo da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. Berriaz bermatzea jarduketaren xede diren ondasun higiezinak eta interpretazio-, komunikazio- eta dibulgazio-elementuak eta lotutako turismo dinamizazioa kontserbatu eta mantenduko direla, behin proiektua gauzatu ondoren
2. Berriaz bermatzea aurreikusitako jarduerak kultura eta gizarte-kohesioa sustatu eta sortuko dituztela jarduera horiek amaitzean.

3. Proiektuan jasotako ondasun higiezinak turismo-erabilerarako erabiltzea, gutxienez 10 urtez, laguntza emateko ebazpenetik aurrera.

#### **10.- BASO-BIDEEN ERABILERA, FINKETARAKO ETA HERRIKO KARRIKETARAKO SARBIDEAK ETA AUTOKARABANAK APARKATZEA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK EBAZTEA.**

Alkateak jakinarazi du ezarrirako epean hasiera batean onetsitako aldatetari bi alegazio aurkeztu zaizkiola. Lehenengoa Fermín Azpiroz Pérezena, ibilgailu motagatik diskriminatzea adieraziz, eta ibilgailu motagatik ezin dela mugatu jakinaraziz. Horri buruz azaldu du, arrazoia izanda ere, ez dela aldatu beharreko puntua, zehapen-tarifak ezarri nahi direlako. Horregatik, alegazioa atzera botatzea proposatu du, eta Udalak ordenantza berrikusteko konpromisoa hartu du, eta Azpiroz jaunaren proposamena kontuan hartuko da.

Bigarren alegazioa Manuel David Aponte Exposito jaunak aurkeztu du, Malagako La Peka elkartearen izenean. Bertan, artikulua berri bat sartzeko eskatzen du, karabana ibilgailu traktoretik bereizteko. Aldatu beharreko artikulua ez denez, ezestea proposatu du, eta aurreko kasuan bezala, proposatutako ekarpena etorkizunean aztertzea.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 4.) Fermín Azpiroz Pérezek aurkeztutako alegazioa ezestea, ez baita bertan proposatutakoa aldatetaren puntuaren afera.
- 5.) Manuel David Aponte Exposito jaunak La Peka elkartearen izenean aurkeztutako alegazioa ezestea, bertan proposatutakoa ez baita aldatetaren gaia.
- 6.) Biei jakinaraztea beren proposamenak aztertu eta kontuan hartuko direla Ordenantzaren hurrengo errebisioa egiten denean.

#### **11.- IÑAKI CILVETI LECUMBERRIK AURKEZTUTAKO IDATZIAREN ERANTZUNA**

Irigaray alkateak Iñaki Cilveti Lecumberri jaunak 2022ko abenduaren 19ko bilkuran hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa irakurri du, honako alegazio hauetan oinarrituta:

*LEHENA: Lehenik eta behin, esan behar dut ez didatela erantzun nire bilera-eskaerari, eta, beraz, idazki honen bidez bilera-eskaera hori berresten dut.*

*Bigarrena. Adierazi nahi dut ez nagoela ados eskatutako konponketak Udal langileek ez egitearekin edo Udalarentzat horrelako lanak egin ohi dituen enpresa ez izatearekin; izan ere, uste dut langile kualifikatuek egin behar dutela lan hori, behin hori eginda, Auritzeko Udalak, hala badagokio, egindakoarekin ados dagoela adieraz dezan, eta, era berean, horretarako material egokia erabiltzeko edo, egokia ez bada, zuzentzeko eskatu ahal izan dezan.*

*Hirugarrena: Era berean, uste dut utzi zaidan azalera ez dituela betetzen ereintza egoki bat egiteko baldintzak, aprobetxamendu normala egin ahal izateko; izan ere, golde-lanak ez dira garaiz egin, eta ezin izango da eremu hori ohiko laborantzarako erabili. Udal*

*horrek zaindu behar du herri-lurren aprobetxamendu ona eta horien kudeaketa ona, partikularren arteko gatazka oro saihestuz, bai eta partikularrek ez dagozkien lanak egin behar izatea ere, udal horren eginbeharrak baitira. Udalak errekurtsogileari eskatu zion, alkateordearen bitartez, izenda zezala patatak ereiteko utziko zuen eremua, bere garaian onuradun guztiek hartutako konpromisoa betez, eta, beraz, udal horrek gainbegiratu behar du beste aldea, bere konpromisoa bete dezan.*

*Aurkeztutako errekurtsua aintzat har dadila eta, horregatik, bilera-eskaera onar dadila eskatzen du, Udal horrek hesiak molda ditzala langile kualifikatuei esleituz, txosten edo idazki motaren baten bidez egiazta dadila azalaren aurreko laborantzan produktu kimikoren bat erabili den ala ez, agertutako errekurtsogilearen ereitea kaltetu dezakeena, eta, era berean, berriz azter dadila aurreko onuradunak azalera gainerako onuradunei itzuli dien ala ez, eta jardun desegokia konpentsatzeko moduak.*

Irigaray alkate jaunak, Cilveti Lecumberri jaunak egindako alegazioei erantzunez, jarraian transkribatzen den testua irakurri du, eta onartzea proposatu du.

- Itxiturak konpontzeari dagokionez, esan behar da Carlos Leache Arresek kalteak konpondu dituela eta Udaltzako kideek egindako lanak egiaztatu dituztela. Gainera, ez da onartu lana Udaleko langileek egitea edo horrelako obrak egin ohi dituen enpresari esleitzea, berrikuspena Carlos Leache Arresek egin behar zuela iritzita eta lan horietarako kualifikaziorik behar ez zela iritzita. Bilera egiteko eskaerari dagokionez, korporazio honek ez du beharrezkotzat jo, aurretik ere bilera bat egin baitzen, eta bertan horri buruzko ikuspuntuak azaldu ziren.

- 2022an probatutako produktuek etorkizuneko ereintzetan eraginik ez dutela egiaztatzeari dagokionez, Nekazaritza Zerbitzuko zuzendariaren ekainaren 7ko 47/2022 Ebazpena dago, AGRICULTURA Y ENSAYOS SL enpresari baimena ematen diona 1/22/AIB-22-77-A01 kodearekin egiteko, eta patata-uzta suntsitzetik salbuesteko, errekurtsogileak egin beharreko ereintzetan ondorioak ez duela ulertzen delako.

- Carlos Leache Arrese onuradunak lursaila beste batzuei itzuli dien baldintza berberetan itzuli ote duen eta jokabide desegokia konpentsatzeko modu posibleak ikusten ote diren, bere ustez, Udalak erantzun du itzulketaren prozedura bi horien artean ebatzi behar dela, iristen diren akordioekin, eta hala egin da orain arte “gurpilean” parte hartu dutenen artean, erakundea tartean sartu gabe.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Proposatutako testua onartzea eta Cilveti Lecumberri jaunak egindako alegazioak ez onartzea.
- 2.- Errekurtsogileari hartutako erabakia jakinaraztea, dagozkion ondorioak sor ditzan.

## **12.- CARLOS LEACHE ARRESEREN IDATZIARI ERANTZUTEA**

Irigaray alkateak Carlos Leache Arresek aurkeztu duen idatzia irakurri du eta honakoa dio:

*2022ko azaroaren 14ko bilkuran, Udalak aho batez erabaki zuen Iñaki Cilveti Lecumberriri egin behar izan dion gurpilaren lagapenari dagokion aurten lan egindako 3,5 hektareako ordainagiria igortzea.*

*Erabakia 2023ko martxoaren 16an jaso nuen eta garaiz eta behar bezala aurkezten dut deskargu-orria edo berraztertzeko errekurtsua.*

**ZIOAK:**

*Hasteko ez dut ulertzen adjudikazioduna titular bat baldin bada zergatik Udalak herri-lurren aprobetxamenduaren kanona hirugarren bat kobratzeko erabakia hartu duen.*

*2018an bilera egin zen abeltzainen eta Udalaren artean eta horretan adostu zen “gurpila” egitea, herri-lurren banaketa berria saihesteko. Onartu egin nuen, nahiz eta jakin ematen zitzaidana baino lur gehiago izateko eskubidea izanda gainerako esleipendunei kalterik ez eragiteko modua zela; izan ere, orduan, gurpila egitea erabaki zen, eta ez herri-lurren beste banaketa bat egitea, hori baitzen zegokiona. Urte hartan hasi ziren esleipendun bakoitzeko 3,5 hektareako urteko lagapenak egiten, eta urtero hiru izango ziren lagatzaileak, hau da, urtean 10,5 hektareako ustiapena izateko eskubidea nuen, zegokidanetik urrun eta gaur egun eman didaten kopurutik urrun. Dena den guztiak onartu genuen. Ez dakit erabakiaren akta egin zen ala ez, baina gaur egun aprobetxamenduz gozaten duen edozeinek berrets dezake, eta egintzei lotzen natzaie, lagapen guztiak arazorik gabe egin baitira, Iñaki Cilvetirekin gaur egun egiten den lagapena arte.*

*Ulertzen dut herri-lurren aprobetxamenduaren murrizketa hori lagapen-hartzaileak herri-kanona ordaintzarekin konpentsatzen zela, eta uste dut horrela ulertu zutela denek, gaur egun arte. Gaur arte inork ez du zalantzan jarri “gurpilaren” lagapenari dagokion ordainketa*

*Hortaz,*

**ESKATZEN DUT:**

*Azaroaren 14ko bilkuran Udalbatzak hartutako erabakia ezeztatzeko. Erabaki horren arabera, niri dagokidan hektareen urteko ordainketa egozte, tartean dauden alde guztiak 2018an erabakitako gurpilaren salbuespenari justiziaz dagokion beste bat hartzeagatik.*

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta esan du, bere ustez, Carlos Leache Arresek planteatutako argudioak baliozkoak direla eta azalera hori ez ordaintzea justifikatzen dutela, baina Iñaki Cilveti Lecumberriren argudioak ere ulertzen dituela. Udalak Gurpilaren gaiarekin izandako jokabidea kritikatu du; izan ere, 2016an egin behar zena herri-larreen banaketa berri bat zen, 2021ean egin behar izan zena, legegintzaldi honetan

pandemiaren ondorioz atzeratu zena, eta alde guztiek zorioneko gurpila egitea erabaki bazuten, gutxienez lagapenaren baldintzak dokumentu batean islatu behar ziren. Dokumenturik ez dagoenez, eta Udalaren jarduera okerra dela kontuan hartuta, ezta bietako bati ez kobratzea proposatu du.

Azanza zinegotzi jaunak hartu du hitza. Bere ustez, legealdi honetan hartutako erabakiari dagokionez, udalak zuzen jokatu du, eta Carlos Leache Arrese jaunak urte horretan azalera horretaz gozatu ondoren, berak ordaindu behar du, eta aurrekari arriskutsua sor daitekeela uste du. Iritzi berekoa da Juandeaburre zinegotzi jauna ere.

Oyarbide zinegotzi andreak zalantzak ditu aprobetxamendu bat esleitu ez zaion pertsona bati kobratu ahal izango ote zaion, eta zalantza juridiko bat planteatu du.

Gaia eztabaidatu ondoren, bi interesdunei azalera hori ez kobratzeari buruzko botoa ematea proposatu da, honako emaitza honekin:

Aldeko bi boto (Irigaray eta Oyarbide) eta aurkako bi boto (Juandeaburre eta Azanza). Berdinketa dagoenez bigarren bozketa egin da eta emaitzak berdinak izan dira.

Alkateak bere kalitatezko botoa erabili du arazoari irtenbidea emateko eta, hortaz, udalbatzak erabaki du aldeko bi botoz (Irigaray eta Oyarbide) eta aurkako bi botoz (Juandeaburre eta Azanza):

Carlos Leache Arresek jarritako errekurtsioa onartzea eta azalera horren 2022ko ordainketaz bi interesdunei salbuestea, Leache eta Cilveti.

### **13.- FERMIN SENOSIAIN DUFURRI ERANTZUTEA**

Irigaray alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du Fermin Senosiain Dufurrek eskatu duela Atalozi, Mendixuri eta Lindusko bazkalekuetan 35 ahuntz sartu nahi dituela maiatzetik irailera. Jakinarazi du harremanetan jarri zela basozainekin eta Mendi Zuzendaritzako langileekin, eta esan ziotela horretarako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren baimena behar dela, lehenengoa bigarrenaren mende dagoela, eta bigarrena lortzeko interesdunak kontrol- eta erabilera-plana aurkeztu behar duela. Udalaren nahitaezko baimenari dagokionez, 2018an onartutako herri-aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 31. eta 39.A artikuluen arabera, ezin da ahuntz-aziendarik sartu eremu horretan; beraz, gaur egun ezin da eskatutako baimena eman.

Udalbatzak erabaki du aho batez Fermin Senosiain Dufurren eskera deuseztea.

### **14.- BAZKALEKUEN ADJUDIKAZIOA ANA BEAUMONTI ESKUALDATZEA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Pedro Urtasun Errok Ana Urtasun Beaumonti eskualdatu diola bere abeltzaintza-ustiategia, eta hark egin duela esleitutako herri-larreak eskualdatzeko espedientean dagoen eskabidea. Hortaz eta ikusita baldintza guztiak betetzen dituela,

Udalbatzak aho batez erabaki du Pedro Urtasun Errori esleitutako larreak Ana Urtasun Beaumonten alde eskualdatzea, eskubide eta betebeharrak guztiekin, 2021ean egindako

esleipenetik geratzen den aldirako.

**15.- PUIO ETA GARINOINGO UDALEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ABIADURA HANDIKO KANTAUARIAR ETA MEDITERRANEOKO KORRIDOREAREN PLATAFORMAREN PROIEKTUAREN OBRAK DIRELA-ETA BI UDALETAKO HERRI-PARTZELAK DESJABETZEKO PROZESUARI BURUZKOA. TARTEA: TAFALLA- CAMPANAS (NAFARROA).**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta Puio eta Garinoaingo udalek aurkeztutako mozio bat azaldu du, abiadura handiko tren eraikitzeke herri-lurren desjabetzeari buruzkoa. Udallerri horiez gain, Tafalla, Barasoain, Tirapu, Tiebas-Muru Artederreta eta Biurrun Olkoz ere kaltetuta daude. Aurkeztutako mozioan ez da eztabaidatzen azpiegiturarekiko jarrera, baizik eta zabortegetarako herri-lurren desjabetzea, horrek ingurumenean eta ekonomian dituen ondorioekin. Gainera, eskatu dute desjabetzearen ordez aldi baterako okupazioaren figura erabiltzea, etorkizunean lur horiek dagokien herrietako herri-eremura itzul daitezen.

Gaia eztabaidatu ondoren Udalbatzak erabaki du aho batez honakoa onartzea:

- 4.) *Ezinbestekotzat jotzen dugu ADIFek udallerri horien herri-jabetzan gutxieneko esku-hartzearen printzipioa errespetatzea, eta, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 15. artikulua aplikatuz, desjabetzea gauzatzeko behar-beharrezkoak diren ondasunak eskuratzea eta okupatzea.*
- 5.) *Ezinbestekotzat jotzen dugu ADIFek herri-ondasunen aldi baterako okupazioaren figura kontuan hartzea, eta ez desjabetzea, eraginpeko udallerrien auzotasunak herri-ondasuna aprobetxatzen jarrai dezan. Horretarako, obrak kontuan hartu beharko du lursail horiek erabiltzeko baldintza egokietan geratzea, ezagutzen ditugun moduan.*
- 6.) Hartutako erabakia Puio eta Garinoaingo Udalei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Gai zerrendatik kanpo, gai hau sartzeari erabaki da aho batez:

**MEMORIA, BIKTIMAK, GIZA ESKUBIDEAK, BAKERAKO HEZKUNTZA ETA BIZIKIDETZAREN ARLOKO JARDUERAK EGITEKO 2023rako NAFARROAKO TOKI ENTITATEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIRAKO ESKAERA**

Irigaray alkateak hitza hartu du eta memoria, biktimak, giza eskubideak, bakerako hezkuntza eta bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko 2023rako Nafarroako toki entitateentzako laguntzen deialdiari buruzko informazioa eman du. Gai hori aurretik landuta, Begoña Munarriz Guezalari proposatu zion 1936ko gerrako biktimak aitortzeko memorial baterako zirriborro bat prestatzea. Zirriborro hori 1978a arte udalerriko hilerri zibil zaharra izandakoan jarriko zen, eta litekeena da 1936ko abuztuaren 12an espioi izatea egotzita Oiarburun hildako emakumea bertan lurperatzea.

Munarriz andrearen proposamena plataforma bat eraikitzea da, aipatutako hilerrietik geratzen den horma aprobetxatuz, eta hor bi harri jarriko lirerateke, bata Iruñeko espetxekoa eta bestea hiribildu honetako espetxekoa, non hildako pertsona batzuk azken aldiz irten

ziren, eta haien gainean alegoria bat.

Proposatutakoa eta oroimenezko ekitaldiaren kostua 6.493,00 euro gehi BEZa da.

Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

- 1.- Irigaray alkatearen proposamena onartzea, haren kostua 6.493,00 eurokoa da.
- 2.- memoria, biktimak, giza eskubideak, bakerako hezkuntza eta bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko 2023rako Nafarroako toki entitateentzako laguntzen deialdian eskaera aurkeztea.

## **16.- BESTERIK**

### **Farmazia zerbitzuarekin elkarlanean aritzea**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du joan den otsailaren 21ean hitzarmen bat sinatu zela Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin, medikazioaren erabilera hobetzeko programa bat eskaintzeko, SPD prestatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Berdintasun teknikariaren kontratazioa**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Pirinioetako Planaren ekintzen barruan proposatu zela udalek pertsona bat kontratatzea berdintasun-teknikari gisa lan egiteko, baina, gaia korporazioko kideen artean eztabaidatu ondoren, kontratazio horri ez atxikitzea erabaki zela, udalaren egoera ekonomikoagatik eta lan hori Auñamendi Mankomunitateko langileekin edo Nafarroako Gobernuaren bitartez egin daitekeela iritzita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Zalduako aztarnategiko hondakinak finkatzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du Arkeologia Atalak hainbat lan egin dituela Zalduako aztarnategiko hondakin batzuk finkatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Belaunaldi guztientzako parkea**

Irigaray alkateak jakinarazi du proiektua 2030 Agendako deialdira aurkeztu zela baina ez duela finantzaziorik lortu aurrekontu partidarik ez zegoelako. Gaineratu du Aurizko ikasleek bilera eskatu ziotela eta apirilaren 6an egin zuela eta horretan hobekuntzak eskatu ziotela eta berak proiektua aurkeztu ziela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Iruñeko presondegiko ataria birkolokatzea**

Irigaray alkateak jakinarazi duenez, joan den otsailaren 10ean, oroimen historikoaren erreferente gisa, kartzela zaharreko orubean, 1936ko abuztuaren 23an Evaristo Pérez Luquin eta Constantino Eguia Olaechea Valcarderan hiltzeko atera zituzten atea, biak hiribildu honekin lotuta.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Frontoiko Taberna alokatzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du apirilaren 1etik taberna Patricia Villafranqui Sanchezzi eta Diana Ramírez Villafranquiri alokatu zaiela, pleguan aipatzen diren baldintzetan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirinioko Planaren laguntzen deialdia**

Irigaray alkateak jakinarazi du Luzaide, Orreaga eta Erroibarko udalekin batera turismo birtualaren proiektua aurkeztu zela, aurretik landua, baina deialdi honetan ere ez duela laguntzarik jaso.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Arazoak elurrarekin**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du urtarrilean eroritako elurtearen ondoren kultur etxeak arazoak izan zituela galdaran izotzengatik eta teilatuan filtrazioengatik, izotza urtzeagatik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **PAC delakoa ziurtatzeko hektareak**

Irigaray alkateak jakinarazi du otsailaren bukaera jakin zuela PAC ziurtatzeko 20 hektarea gutxiago izango zirela. Zenbait udalekin batera, bilera bat egin zen Landa Garapeneko kontseilariarekin eta Nekazaritza zuzendariarekin joan den martxoaren 9an, eta, gaia Izko jaunarekin aztertu ondoren, bi alegazio aurkeztu ziren, eta onartu egin dira: hasierako 302,88 Ha-tik amaierako 325,72 Ha-ra igaro dira. Hala ere, etorkizunean, belar-sastrakak kentzeko ekintzak planteatu beharko dira, larre-azalera berreskuratzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Bilera abeltzainekin**

Irigaray alkateak jakinarazi du joan den apirilaren 13an bilera bat egin zela abeltzainekin, eta bertan eztabaidatu zela hegaztientzako bazkaleku baten beharraz, mendizainekin batera Berrotxipin kokatzeko asmoa baitzegoen, baina adierazi zuten ez zutela beharrezkoa ikusten, eta, beraz, gai hori etenda geratzen dela. NPBren gaiaren berri eman zen, auzolanaren datak apirilaren 29rako etaazienda-markaren datak maiatzaren 13rako finkatu ziren, eta Antso biko poligonoko hobi septikoaren mantentze-arazoaz hitz egin zen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Carlos Leache Arreseren gurpila**

Irigaray alkateak jakinarazi du aurten ez direla gurpilari zegozkion zesioak egingen, Javier Urrutia Ibañez eta Pedro Urtasun Errori zegozkiola, eta gaia hurrengo urterako utziko da, hortaz, Javier Urrutia Ibañezek eta Ana Urtasun Beaumontek konpromisoa bete beharko dute.

Udalbatza jakitun da.

#### **Egur lotea markatzea**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du dagokion urteko lotea markatu dela Antso bin, eta Alkatetza jakitun dela Ingurumen Ministerioaren estazioaren barruan geratzen diren pagoak errespetatu direla, eta lotearen prezioan ez duela ia eraginik izan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Pirinioko Mahaiaren Batzarra eta ekintzailtza jardunaldiak**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi duenez, martxoaren 1ean Pirinioetako Mahaiaren batzarra egin zen Otsagabian, eta bertan, lurraldeak despopulazioari aurre egiteko lege bat egiteko beharra adierazi zuen. Modu berean jakinarazi du ekintzailtza jardunaldiak ospatu zirela martxoaren 24an, 25ean eta 26an Otsagabian, Erronkarin eta Nagoren.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Nekazaritza eta Basogintza Institutuko eta Nafarroako Unibertsitateko ikasleen praktikak**

Irigaray alkateak jakinarazi du nekazaritza eta basogintza institutuarekin hitzarmena sinatu ondoren Haizea Barberena Lerindegui ari dela praktikak egiten udaletxean. Gaineratu du, NUKFren bidez jakin duela Nafarroako Unibertsitateko ikasleek praktikak

egin ditzaketela udaletan, arkitektura-profila duen bat eskatu duela, honako gai hauei buruzko memoria baloratuak egiteko: eraginkortasun energetikoa eta kultur etxearen eraberritzea, errota berreskuratzea, Arrobiko borden aurriak sendotzea, Orbaizko atea birkokatzea, etab.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Mugak berrikustea Aurizberrirekin**

Irigaray alkateak jakinarazi du Aurizberriko kontzejuko buruari, Landabere, proposatu behar diola mugak berrikustera joatea legegintzaldia bukatu baino lehen eta aurtengo bazkaria Auritzen egitea, Aurizberriko kontzejuaren kargura.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**17.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.